

Euskal Landa paisaia abeltzaintzaren uztearen aurrean

El paisaje rural vasco ante el abandono de la ganadería

The Basque landscape in the face of the
abandonment of livestock

Juan Cruz Alberdi Collantes*

RESUMEN LABURPENA ABSTRACT

El estudio parte de la premisa de que un abandono de la ganadería por parte del caserío provocaría una pérdida progresiva del paisaje de campiña propio espacio vasco atlántico. La investigación se apoya en primer lugar en investigaciones recientes, como medio para medir desde la incidencia real del abandono de las actividades ganaderas hasta sus consecuencias en el paisaje. Los resultados muestran que el abandono es casi generalizado pero los usos del suelo apenas se alteran. Razonamientos culturales parecen apoyar el mantenimiento del paisaje de campiña aunque se concluye que es una situación transitoria. Los habitantes rurales, preocupados por esta situación, proponen acciones que valoricen el paisaje de campiña, cuya pérdida, más evidente en los territorios rurales próximos al medio urbano, además de una merma de calidad paisajística, tiene implicaciones económicas, culturales y naturales.

Abeltzaintzaren funtzioaren galerak lurzorua erabileran antzeko erreakzioa sortuko lukeela eta baserriaren landa paisaia izango litzateke kaltetuena da ikerketaren abiapuntua. Metodologia argitalpen berrietan oinarritzen da, abeltzaintza jarduerak bertan behera uztearen garrantzia eta paisaia dituen ondorioak neurtzeko bitarteko gisa. Emaitzek abeltzaintzaren abandonua orokorra dela erakusten dute baina lurzorua erabilerak ez direla ia aldatu. Arrazonomendu kulturek babesten dutela baserriko landa paisaia mantentzea, nahiz eta ondorioztatzen den egoera iragankorra dela. Landa-eremuko biztanleek, egoera honekin kezkatuta, landazabaleko paisaia balioesteko ekintzak proposatzen dituzte. Izan ere, hiri-inguruetik hurbil dauden abeltzaintzaren galera nabariago da eta honek, paisaiaren kalitatea murrizteaz gain, ondorio ekonomikoak, kulturalak eta naturalak sortzen ditu.

The study starts from the premise that an abandonment of livestock by the hamlet would cause a progressive loss of the countryside landscape of the Basque-Atlantic area. The research is based primarily on recent research, as a means of measuring from the real incidence of abandonment of livestock activities to its consequences on the landscape.. The results show that abandonment is almost generalized but land uses hardly change. Cultural reasoning seems to support the maintenance of the countryside landscape, although it is concluded that it is a transitory situation. Rural inhabitants, concerned about this situation, propose actions that enhance the countryside landscape, whose loss, more evident in rural territories close to the urban environment, in addition to a decline in landscape quality, has economic, cultural and natural implications.

PALABRAS CLAVE GAKO-HITZAK KEY WORDS

Uso de la tierra; suelo agrario; ganadería; caserío; paisaje.
Lurraren erabilera; nekazal lurra; abeltzaintza; baserria; paisaia.
Land Use; agricultural land; livestock; Basque farmhouse; landscape.

* Geografia Saila. Euskal
Herriko Unibertsitatea
juancruz.alberdi@ehu.eus

Fecha de recepción/Harrera data: 10-06-2021
Fecha de aceptación/Onartze data: 05-10-2021

Euskal baserria, etengabeko aldaketa prozesua jasan duen arren, bere bilakaera historikoan oztopo ugari gainditu ditu, jakin izan du garai bakoitzaren beharretara egokitzen eta osorik, salbuespen salbu, iristen da mende berrira (Ainz, 2001). Etxebizitza eta oinordetza, bere ezaugarri espazial nagusiak, antzekoak izaten jarraitzen dute, baserriak eraiki zirenetik, orain dela mende bat azkenak.

Baserriaren nekazal funtzioaren jarraipena gero eta zalantzakoa da. Azken ikerketek Euskal Herriak hamarkadetan zehar jasandako ustiategiaren abandonu handiena, nekazal baserriaren desagerpenera eramango duela diote (Mauleón, 1998; Ainz, 1999; Alberdi 2001). Hauetariko ikerketa batean aipatzen genuenez, ustiategiaren galera sektorearen birmoldaketarekin lotu behar da. Aspaldiko bilakaera da baina azken hamarkadetan abidura handia hartu duen prozesua da

Etxezarretak (1994), zioenez, ustiategiaren galera ez da nekazaritzaren galeraren adierazlea hala beharrez. Eredu kapitalistaren merkatuaren mobimenduak izan daitezke eta eredu konpetitiboagoa isla izan daitezke.

Landa inguruak, ordea, kaltetuak dira nabarmenki, eremuak ezaugarritzen duten jardura nagusiena galtzen dutelako. Baina landa eremuen artean hiri inguruan dauden landa eremuak dira kaltetuenak. Eskualde hauetan lurraren balorea hiriak finkatzen du eta ez nekazal jarduerak. Epe laburrean ez bada ere, epe ertainetan, belaualdiaren erreleboa planteatzen denean, abandonua nagusituko da

Hiri presio jasotzen duten eskualdeekin batera mendi zonaldeak dira abandonu handienetarikoa jasotzen dutenak, bai landa baita ustiategiarena ere. Era honetako eremutan irauten duen nekazaritza, zailtasun fisikoak eragindako ondorioak direla medio, nekez egokitu daiteke globalizatutako eredu batek eskatzen duen konpetentzia mailara .

Hiri presioa eta ezaugarri desegokiak batzen dira Euskal Baserrian. Ondorioa garbia da, abandonua arruntena baino askoz handiagoa da eta hiri eremutik hurbil dauden eskualdeetan, Lapurdi, Gipuzkoa eta Bizkaiko baserrietan bereziki, egoera hau oraindik ere gehiago areagotzen da.

Euskal Herriko Atlantiar isurialdean dugun landa paisaia, egun eta historian zehar izan dena, baserriaren nekazal egiturari lotu behar zaio. Gure mendi eta natur eremuetan dugun paisaia ez da naturala, gizakiaren erabileraren ondorioa da gehien bat, eta nekazaritza erabilera nagusia izan denez mende askotan, baserriarrek egin duten erabileraren ondorioa da.

Baina erabilera hau aldakorra da, nekazal ustiakuntzak aldatzen diren bezala, eta historikoki erabilera eta itxura aldatzen joan da. Azken hamarkadetan, baserriaren bilakaeraren barruan, aldaketa handi bat ematen ari da, bere historiaren handiena ziurrenik. Baserria, nekazal

unitate bezala sortu zen baina hamarkada hauetan nekazal izaera galtzen ari da, hein handi batean bederen.


Asko gara bilakaera hauetaz kezkatuak gauden ikerlariak eta lan ugari burutu dira gertatzen ari den prozesua azaltzeko. Landa paisaia, nekazaritza erabilerak galduz gero, aldatuko dela pentsa daiteke. Hau da, aldaketa aurreratuta badago erabileraren aldaketak eta hauekin paisaiaren aldaketak nabarmentzen hasiak behar direla.

Azterketa honetan geografiaren arlotik burutu ditugun zenbait lanen ondorioak batzen ditugu. Ondorio partzialak dira, ikuspegi ezberdinak bilduz, baina denak elkarturik egun baserriaren paisaiaren inguruan gertatzen ari dena jasotzen dute. Lan honen emaitzak, euskal baserriaren azterketan gure aurretik dauden ikerlari askori erreferentzia egiteaz gain (Caro Baroja, Ainz, Galdos eta Ruiz Urrestarazu, Mauleon, Artano...), ikertzaileak berriki egindako hainbat lanetan jasotako emaitzak laburbiltzen saiatzen da (Alberdi, 2017; 2019; 2021) eta, horrela, aurkezpenean bildutako emaitzei gaurkotasuna ematen.

Baserriaren terminoarekin, sakabanatutako landa etxebizitza eta, aldi berean, Euskal Herriko isurialde atlantikoaren zatirik handienaren bereizgarri den nekazaritza ustiatagia izendatzen da. Ereku horretan sartzen dira Bizkaia, Gipuzkoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Arabako haran atlantikoak; Nafarroako Foru Komunitateko ipar mendebaldeko zatia eta Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeak.

**1. BASERRIA,
EUSKAL ATLANTIAR
ISURIALDEAREN
USTIAPEN EREDU
NAGUSIA.**

Mapa 1.- Euskal Baserriaren hedapen eremua



Iturria: Santana et al. 2001, Egileak egina

Ustiategi honen ezaugarri tradizionalak honela laburbiltzen dira: bloke etxe bat dago, ukuiluaren, belar biltegien, fruituen eta abarren bidez etxebizitza eta nekazaritza ustiategiaren zerbitzu funtzioak betetzen dituena, ekoizpen lurraldea osatzen duten erabilera desberdineko lurrez inguratuta. Hauen artean, alderik garrantzitsuena eta etxebizitzatik gertuen dagoena landatutakoa da. Kanpoko orlan belardiak eta, hala badagokio, sagarrondoak izaten dira, eta harago egurra. Industrializazioarekin, abeltzaintzarako baserria gailentzen denetik, abereen ohea osatzen duten iratzeak, abereen gorotzekin nahastu ondoren, lur pobreetan eta oso lixibatueta beharrezkoa den ongarrria emango dute.

Nekazaritzako unitate hau Euskal Atlantiko ibarretako landa paisaia aurkezten duen egoeraren arduradun nagusia da. Ruiz Urrestarazu eta Galdosen arabera (2013), Euskal baserriaren paisaiak konfigurazio sinplea mantentzen du, eta bere osaketa funtsezko bost elementutan oinarritzen da. Lehendabiziko laurak mendiko landa eremutako ezaugarriak dira, hala nola, topografia nahasia, habitaren dispersioa, belardiak eta koniferak. Azken mendearen herri hazkundearen ondorioz, hirien hurbiltasuna gehitu behar zaio, paisaian eragin zuzena eta nekazal jardueran zeharkako eragin handia ere sortzen duelako. Horiek guztiak mosaiko egitura sortzen dute haranetako magaletan, non pinudien lursailak (batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian), belardiak eta baso misto atlantikoa dira bere teila nagusiak. Bere emaitzaren arduraduna abeltzaintza eta basogintza orientazioa duen baserria da. Bi jarduerak elkartzeak landa atlantikoko paisaia mistoa sortzen du.

Egokitzapen honen lehen faseetan, XX. mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan, baserri ugari utzi zuten ustiapena. Beste baserri batzuek merkatuaren eskakizun berrietan sartzea erabakitzen dute. Erronka horrek, ordea, baserriaren berezko egiturazko gabeziak zituen. Ustiategiaren lurralde oinarri murriztak ekoizpenaren hazkunde desiratua geldiarazi egiten zuen. Beraz, produktibitatea teknologiako inbertsioen bidez eta lan metaketaren bidez lortu behar zen.

Ainzen (2001) arabera, beste egokitzapen bat lanaldi partzialeko nekazaritzari heltzea izan zen, errentak dibertsifikatzeko eta diru sarrerak handitzeko modu gisa. Aktibitate aniztasuna ez zen berritasuna baserrian, tradizio luze baten jarraipena baizik. Azkeneko Erregimenean, nekazaritzako lanaren eta ontzioletarako zura moztearen eta garraiatzearen arteko bateragarritasuna, ikazkintza edo burdinola ugari zainak eta ikatzak garraiatzearekin lotuta zegoena, ohikoa zen. Baina azken hamarkadetan lanaldi partzialeko nekazaritzak ez du lortu baserriaren egonkortasuna lortzea, bai ordea desagertze prozesu azkarragoa saihestea. Azkenaldiko ikerketek prozesuaren atzerazintasuna azpimarratzen dute: lanaldi partzialeko nekazaritza abandonuaren atariko da.

Ruiz Urrestarazuk eta Galdosek (2000) diotenez, egokitzapenaren azken faseko gakoak hiri merkatuekin, nekazaritza politikekin eta nekazaritzako elikagaien industriarekin eta merkaturatzearekin lotuta daude, Europako

landa eremu guztietan bezala. Horren ondorioz, baserriak abeltzaintza izaera indartzen du, oraindik ere lehentasuna duen esne dedikazioarekin, baina haragi ekoizpena gero eta gehiago desbideratzen da. Abeltzaintzaren funtzio honek lur erabileraren inguruko aldaketa nagusi bat ekarri du, belardi eta soroen probetxuaren estensifikazioa, larreen presentzia nabarmenduz. Modernizazioak eragina izan du, halaber, etxean. Izan ere, askotan bizileku eta ekoizpen izaera mistoa galdu egin du, eraikin zaharreetan mantentzen den etxebizitza funtzioaren (gehienetan sakon berritua) eta beste eraikin funtzional batzuei atxikitako produkzio funtzioaren arteko bereizketa fisikoaren mesedetan.

Nekazaritzako ustiategi mota horrek jasan dituen aldaketa prozesuak eta gaur egun horietako asko ixteak arriskuan jartzen duen zalantzazko egoera ez datoz bat beste garaietan izandako ustiategi honen bilakaera orokorrarekin. Hainbat ikertzailek diote ez gaudela baserria astindu duten krisi ziklikoetako baten aurrean. Baserriak bi aukera ditu: baserria etxebizitza bihurtzea edo nekazaritzako eta abeltzaintzako baserria, merkatuko irizpide kapitalisten arabera kudeatua. Azken bertsio horrek, Ruiz Urrestaruzuk eta Galdosek (2000) diotenez, baserrizat hartu izan denarekin antzekotasun handiagoa izan lezake, baina baserriaren kontzeptua osatzen zuten oinarritzko ezaugarri sozial, kultural eta lurraldekoak falta zaizkio.

Lurralde sistema orok transmisio mekanismo batzuk erakusten ditu, jarraipena, garapena edo, bestela, porrota ziurtatzen dutenak. Baserriko nekazaritza eremua arautzen dutenen artean, bat da nagusiki bere sistemaren haustura eragiten ari dena, familiako eskulanik eza.


Familiaren barruan nekazaritza funtzioa ez berritzeak sistemaren egitura osoari eragiten dio. Nekazaritza eta abeltzaintzako funtzioek prozesu bati ekiten diote, eta prozesu hori, azkenean, abandonura eramaten du. Prozesu hori hainbat etapatan gauzatzen da eta baserriaren gainontzeko funtzioetan ere eragiten du (ikus Taula 1),

- Nekazaritza eta abeltzaintzako funtzioek prozesu bati ekiten diote eta prozesu horren azken fasean jarduera bertan behera uzten da. Prozesu hori hainbat etapatan gauzatzen da: jarduerari eustea, berritzerik eta ustiategian hobekuntzarik egin gabe, estentsifikazioa (esnetik haragitarara edo ardieta), marjinalizazio ekonomikoa eta abandonua
- Nekazaritza lurzoru erabilgarriaren aprobetxamendu estentsiboak hedatu egiten dira, belarditik sega larreetara, segarik gabeko larreetara eta, azkenik, energia ahalmena galtzera. Nekazaritzako lurzoru erabilgarria pixkanaka murrizten doa.
- Baserriaren oinarria are unitate txikiagoetan banatzen da.

2. EGUNGO BASERRIAREN PORROTA, IA ERABATEKOA

Familia nukleoaren biziraupenerako beharrezko baliabidea izateari uztean, maiorazkoak bere funtzioa galtzen du eta ondasun higiezinak heredatzen dituzten neba arreba batzuen artean banatzen hasten dira. Ondarearen balio ekonomikoak pentsaezina egiten du baserriaren jabariari eustea ahalbidetuko duen diru konpentsazioa.

Taula 1.- Egungo baserriaren krisiaren garapena



Iturria: Alberdi 2001. Egileak egina

Nekazaritza funtzioa bertan behera uztera daraman prozesua ez dago egun guztiz osatuta, eta, normalean, tarteko egoerak ikusten ditugu, baina, sistema horren funtzionamenduan elementu nagusia falta denez, ustiatzean familiaren eskulana berritzea, ezinbestean osatuko da.

Agian, prozesu honek duen berezitasunik handiena bere izaera orokorra da. Gutxi dira bertatik ihes egiten duten nekazaritza eta abeltzaintzako unitateak. Ustiatze gehienek prozesu horri egin behar diote aurre, baina, guztien artean, lanaldi partzialeko nekazaritzan aritutakoak dira gehien eragiten dietenak. Hirurogeiko hamarkadan lanaldi partzialeko nekazaritza eredu bat izan zen, euskal baserrian jarduerari eustea ahalbidetu zuena, nekazaritza aktiboen murrizketa motelduz, baina hurrengo belaunaldia baserriaren jabetzara iritsi denean nekazaritza funtzioak behin betiko uzten dira.

Ikusten ari garen nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak bertan behera uzteko prozesuaren intentsitatea dela eta, ez gara berrikuntzaz, berregituraketaz edo birmoldaketaz ari, ingurune hori benetan deuseztatzeaz baizik.


Baserriko nekazaritza sistemaren hausturaren eragilea eskulan aktiboaren falta bada, egoera horretara eramaten duten arrazoiak eremu horren kanpoaldean bilatu behar ditugu, nekazaritza eta abeltzaintzako

okupazioen garapen orokorrean eta hiri inguruneak lurzoruan eta nekazal populazioan duen eraginean (ikus Taula 2).

Behatutako bilakaera bat dator nekazaritza eremuen garapen orokorrarekin. Nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreen bilakaeran, merkatu libreko ekonomia batean aurre egiteko eta bizirauteko gai izango den sektore lehiakor bat sortzea helburu duen politikak markatzen du. Gehiago eta merkeago errenditzen saiatzen den eredu bat lortzea da helburu. Ustiategiak ekoizpen ahalmena handitu behar dute, ekoizpena kapitalizatuz eta industrializatuz. Horrek ekoizpen instalazioaren hobekuntzan inbertitzea eta lurralde oinarri garrantzitsu bat izatea, ustiategiari beharrezko maniobra marjina emateko gai izango dena, eskatzen du. Askotan, aukera horiez gozatzea ere ez da nahikoa merkatu dinamika baten berezko aldaketen mende dagoen sektore batean.

Orokortze horren barruan, euskal baserriak zenbait berezitasun ditu, eta, horren ondorioz, jarduera are gogorragoa da. Baserri gunea Euskal Herriko haran atlantikoak dira. Malda handiko erliebe malkartsua dute. Mendien gailurrak altuera txikikoak badira ere, ia ez dira 1500 metrotik gorakoak kota altuenetan, eta mendirik ohikoenak 400-1.000 metrokoak dira. Hala ere, erdi mendiko eskualde horiek sakonki industen ditu ibai sareak, ibaietako ibaiak higadura ahalmen handia hartzen baitute, jaiotzen direnetik Bizkaiko Golkoko oinarri mailara oso hurbil daudelako. Luzetarako profila duen malda nabarmenari prezipitazio ugariko klima gehitu behar zaio. Ondorioz, haran horiek estuak dira, oso malkartsuak eta malda handikoak.

Taula 2. Baserriaren krisia sortzen dituzten faktoreak



Geomorfologi ikuspegi honek, berez, lur hauen nekazaritza ahalmen urria azaltzen digu. Oso gutxi dira % 20tik beherako malda duten lurzoruak. Beraz, mekanizatu daitekeen lurzoruaren hedadura, gaur egun nekazaritzarako aprobeitza daitekeen bakarra, txikia da. Laborantzarako azalera onenak, ibai ibarrak, tamaina txikikoak dira, luzeak eta ibaien behe arroetara mugatuak ia. Espazio gosea, urritasunetik sortua, bailara hauek definitzen dituen ezaugarrietako bat da.

Atlantikoko haran askotan, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoan, baina baita Nafarroa iparraldean eta Lapurdin ere, baserriaren nekazaritza jarduera hiri funtzioetatik eta erabileretatik hurbil dago. Hiriak ez badu beti eragin negatiboa izaten nekazaritzako funtzioen garapenean, euskal kasuan nekazaritza funtzioa pixkanaka deuseztatzen du bere ingurutik.

Egoera hori eragiten duen arrazoi nagusietako bat landa lurzoruaren prezioan dago, haren balioa finkatuta egoteari uzten baitio nekazaritza ahalmenak, eta hirigintza aukeren arabera araututa geratzen baita.

Nekazal lurrak arrendatzeko modalitateek ere ez diote mesederik egiten abeltzainari. Ez da lurrik saltzen eta ez errentan jartzen nekazaritza prezioetan, eta ahozko akordioak dira nagusi, inolako berme juridikorik eta denbora bermerik gabe. Segurtasun falta horrek inbertsio berriak egitea edo ukilua handitzea eragozten dio; izan ere, badaki une jakin batean kudeatzen duen lurralde oinarria iragankorra izan daitekeela.

Hasitako prozesuaren ondorioz, baserriaren nekazaritza dedikazioaren murrizketa izan da aldi honetako elementu benetan deigarria. Ekoizpenaren zati bat salmentarako erabiltzen zuen dedikazio partzialeko baserri baten nagusitasunetik, autokontsumorako soilik ekoizten duen ustiategi baten nagusitasunera igaro da (% 65,5). Honek ia ez du baratze txiki bat mantentzen, eta, kasu askotan, abeltzaintza, ardi eta zaldien unitateren bat soroaren erabilera partzialki edo osorik mantentzea ahalbidetzen du. Oinordetzaren zati bat hirugarrenei lagatzea ohikoa da. Usurbilgo baserriaren azterketak argi eta garbi islatzen du aipatzen ari garen egoera (Altuna, 1996; Uriarte, 2014).

Globalizazio ekonomikoak nekazal kontzentrazioa bultzatzen badu, ustiategiaren zailtasun fisikoak eta lurralde zailtasunak dituzten eremuetan abandonuaren fenomenoak are gogorragoak da. Hiriarekiko hurbiltasunak ere abandonu prozesua bultzatzen du. Eremita hauek garatutako nekazaritza desagertzera iritzi daiteke.

Argitaratutako ikerketa berri batean (Alberdi, 2019), baserriaren desagrarizazioak euskal paisaiaren eragiten ari diren aldaketetan sakontzen dugu. Gure helburuaren azalpenerako ikerketa garrantzitsua denez, artikululu honen emaitza nagusiak laburbilduko ditugu, irakurleak uler dezan zein diren, oraingoz behintzat, ingurune horri eustea ahalbidetzen duten gakoak.

Ez da bakarra, hala ere, azken urte hauetan paisaiaren eraginaren inguruan argitaratzen ari den ikerketa bakarra. Narbarte eta Del Amok (2020), bi mendeetako paisaiaren aldaketaren azterketa egin ondoren, natura ikuspegi hutsetik sarritan ikusten diren espazioen ageriko ikusezintasunaren aurrean, beraien ikerkuntzan lortutako emaitzek agerian uzten dute gaur egun marjinalizazio prozesu gogor bati lotuta dauden paisaien dentsitate historikoa. Jardueraren abandonua, beraz, gero eta nabariagoa gelditzen ari da argitaratzen ari diren ikerketa ezberdinetan.

Aurreko puntuan agerian utzi denez, nekazaritzako erabileren egungo oreka, salbuespenak salbuespen, larrerako belardien aprobetxamendu oso estentsibo eta puntual batean oinarritzen da, eta prekarioan dauden kontratuen sistema batean. Honen bidez abeltzaintza jarduera uzten duten ustiategiek hirugarren bati lagatzen baitiote bere oinordetzaren zati bateko edo osoko gozamina.

Zaila da zehazte nekazaritza lurzorua zer ehuneko erabiltzen duten alokairuak edo prekario kontratuek, baina estimazio ofizial batzuen arabera (INERen Nekazaritzako Ustiategien Egiturari buruzko Inkesta, 2017), Euskadiko ustiategiek erabiltzen duten azaleraren % 51a da. 2009ko nekazaritza erroldaren arabera, zifra nabarmen txikiagoak dira, % 31ren ingurukoak, eta azterlan lokalizatuenen emaitzak lur erabilgarriaren % 29tik % 46ra bitartekoak dira. Era batera edo bestera, emaitza esanguratsuak dira lurzorua erabileren egungo oreka ulertzeko.

Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerarako lurzoru mota horiek dituzten baldintzei buruzko datuei dagokienez (Uriarte, 2014), badirudi jabetzakoak baino nabarmen hobek direla, % 59,8 erabat landu daitezke, eta mekanizazio motarik onartzen ez dutenak, berriz, % 3,6 baino ez dira. Lursailaren kalitatea luberritze aukerekin lotuta dago, eta, haren arabera, % 65,4 egokia da lantzeko, eta artzaintzarako, berriz, % 28,1 erabil daiteke. Belardiari eskainitako espazioa da ia erabilera aipagarri bakarra: azaleraren % 86,6 bazkarako erabiltzen da. Lur zatien lagapena edo alokatuta belarra lortzera zuzentzen da, eta jabearen aldetik asmo argiarekin, lurzorua nekazaritza erabilera mantentzea.

Bestalde, ekoizpen ahalmena profesional diren ustiategi kopuru xume batean pilotzea izango litzateke espero liteken emaitza. Baina, hauek oso gutxi dira, zenbait herrietan ia ez da inor gelditzen. Honek zalantza bat sortzen zaigu erabilera honen inguruan: profesional hauek interesa al dute bazka azalera guztia aprobetxatzeko?


Argi dago ustiategi profesional horiek jarduera utzi edo baztertzea erabaki dutenen lurzoru erabilgarriaren zati handi bat pilatu dutela. Baina ez dute azalera osoarekin egin eta batez ere lurzoru mekanizagarrian zentratu dira. Etorkizuneko planteamendu bati begira gehitzeko interesa izango luketen azalera murrizta da eta, ahal bada, mekanizagarria, hau da, bazka lortzeko erabili daitekeena. Partzela berriak erabiltzeko nahia agertu dute, baina partzela horiek bi oztoporekin topo egiten dutela onartzen dute:

- Ustiatégian eskulan nahikorik ez izatea gaur egun erabiltzen dutena baino lur gehiago gozatzeko.
- Eskaintza txikia eta kalitate txarrekoa, proposatzen dizkieten lurren artean. Lursail horiek urrun daude, txikiak dira, sastrakak erdi inbadituak, zuhaitz artean, itxiturak egoera txarrean dituzte, eta, ondorioz, ez dituzte onartzen.

Azalera ez mekanizagarria ardi aziendak eta, neurri txikiagoan, haragitarako behi aziendak dituzten ustiatégiek bakarrik eskatzen dute, betiere ustiatégitik gertu. Ardi aziendek, egunez aprobeztatzen baitute oinordetzaren baldintza onenak dituen lursaila, eta, gauez, malda handienekoetan lo egiten baitu (Guzmán, 2017).

Larreak, neurri handi batean mekanizagarriak ez direnez, Euskal baserriko gune erabilgarriaren kudeaketa helburu ekonomikorik ez duen ustiapen tipologian oinarritzen dela nagusiki lortutako erakusten dute emaitzek. Baserritarrak autokontsumorako lortzen duen ekoizpena aprobeztatzen ditu larre hauek eta abeltzaintza talde txiki bat gordetzen du, larreak erabiltzeko. Ereku hauek ez dira txikiak, mekanizagarriak baino zabalagoak izan daitezke kasu askotan, eta oreka fin honetan mantentzen dira egun. Adibide bezala, jarraian Andoaingo mapan zenbateraino izan daitezken lur hauek jasotzen da, hau da, %20 baino malda gehiago eta belardiak diren partzelak (Ikus Mapa 2).

Mapa 2.- Belardiak %20 ko maldatik gora Andoainen



Iturria: Alberdi, 2019. Egileak egina

Deskribatutako ustiatégiek geldiarazi egiten du mendi eskualdeetan landarediaren birsorkuntza naturala dakarren agertoki tradizionala, artalde txiki baten bitartez. Hala ere, urrutien dauden lur zatietan,

agrologi gaitasun gutxien dutenetan eta tamaina handiko abeltzaintza ustiatetik ez duten eremuetan, ez da aukera handirik ikusten egungo erabilerekin jarraitzeko eta, horietan, mendiko beste eskualde batzuetan bezala, landarediaren birsorkuntza naturala gehien aurreikus daitekeen aukera da. Aukera hori, ordea, Euskal Herrian zenbait estimaziorekin topo egiten du, eta horiek, oraingoz behintzat, hedapena naturala (basoa eta sastraka bereziki) mugatzen dute eta landazabalaren erabileraren jarraipena eusten diote. Hauek hurrengoak lirateke:

1. Nekazari eta abeltzainen artean, lurzorua aprobetxamendu produktiboaren kontzientzia argia ikusten dugu. Gaur egun jarduera bertan behera uztea oraingo egoera den arren, ustiapena garbi mantentzeko beharra sentitzen da. Kasu batzuetan, gai horri buruz galdetuta, nekazal eremua garbitu eta zaindu beharra argudiatzen zuten, funtzio batekiko hobbya, abeltzaintza, beti etxean dagoena, edo familiaren ondarea abandonatuta ikusteak eragiten zuen tristura sentsazioa. Arrazoibide horiek kultura karga handia erakusten dute.
2. Lur erabilgarriaren laguntzek, Euskal baserriaren kasuan, mendiko ordainketa bakarrak eta konpentsazio ordainketek (ICM) abandonu prozesua geldiarazten laguntzen dute, ordainketa jasotzeko eskakizun nagusia nekazaritza erabilerari eusteko konpromisoa baita, eta nekazariaren ekonomia osatzen laguntzen baitute. Hala ere, ez dira gai onuradun txikien lursail asko bertan behera uztea saihesteko, laguntza horiek ez baitira interesgarriak haientzat.
3. Beste ikerketa batzuek, hiri presioa handia den nekazaritza eremuei lotutakoek, interes espekulatiboak adierazten dituzte lursailen jabeen aldetik; izan ere, horrelako guneetan nekazal erabilera mantentzeak goranzko eragina sortzen du lurzorua prezioetan. Baso jabeek egindako elkarrizketetan pinuak berriz ez jartzeko ematen zen azalpenetako bat, hain zuzen ere, lursailak zuen lurzorua balioa galtzea zen.

Antzeko estrategiak erabiltzen dira jarduera bertan behera utzi duten ustiategi zaharretan; izan ere, baserriak nekazaritza funtzioa betetzeari utzi dio, eta landa ingurunean etxebizitza hutsa bihurtu da. Jabeen interesa ingurune hori mantentzea da, eta hori ez litzateke gertatuko, baldin eta etxebizitza “jan” egingo balu (Ruiz Urrestarazu eta Galdos, 2013), edo landazabaleko paisaia galduko balitz. Jabe horiek beren lur zatien erabilera lagako dute abeltzaintzako aprobetxamenduetarako.

Alderdi horiek nekazaritza erabilerei eustea sustatzen dute, nahiz eta oso erabilera puntualak izan, bai eta lagapen edo alokatzeko modalitateen jarraitutasuna ere, oro har ahozkoak diren kontratuetatik abiatuta, eta, ziur asko, etorkizunean egiten jarraituko dute.

Deskribatutako ereduarekin batera, baserri bat dago oraindik, abeltzaintza ogibide duena, dedikazio eskusibokoa edo partzialekoa,

bere lurrak kudeatzen dituen, jarduera uzten joan diren beste ustiategi batzuetakoekin batera. Baserri honek lurzoruen zati handi bat hartzen du, bai bazterten duen taldearena, bai abandonu osoa aukeratu duenarena, erreta prekarioen formulai esker. Hala ere, talde hori oso txikia da, eta are gehiago hurrengo urteetan jarraituko duenak.

Ikusi dugu gaur egungo baldintzetan jarduera hori irizpide ekonomikoekin egiten duten ustiategiek ez dutela interesik erabiltzen duten lurzorua nabarmen handitzeko. Gaur egun, nahikoa lursail hartzen dituzte, ez dute denborarik, ezta eskulanik, eta, interesa izanez gero, nekazaritzako makinekin erabil daitezkeenak baino ez dituzte erabiliko

Ondorioz, mekanizatu ezin diren nekazaritza lur zatien eremu zabalak, % 20tik gorako maldak dituztenak eta abeltzaintza erabilera mantentzen dutenak, gaur egun sastraka sortzeko arrisku argian daude, lursail horien erabilera hain estentsiboa delako ezin baitio aurre egin bere landare estalduraren birsorkuntza naturalari, edo, besterik gabe, ez dutelako interes agrologikorik beste nekazari batentzat (ikus irudia 1). Haren hedadura mekanizatu daitezkeen lur zatiak baino nabarmen handiagoa da, eta, ziurrenik, bokazioa aldatuz gero, euskal landa paisaiaren erabileren orekari eragingo lioke.

Irudia 1.- Utzitako nekazal partzelak Usurbilgo Udalerrian. 2018



Iturria: Egileak egina

Era berean, ez dirudi erabilgarria den lurzorua uztearen ordezkotzat aprobetxamenduek garrantzirik izango dutenik. Koniferoen birpopulaketak, behin moztuta, ez dira beti birlandatzen, eta berezko zuhaizti bat birsortzen da, tamaina txikikoa eta oin ugari dituenena. Alderdi askok landare estalki naturala eta, azken batean, berez sortutako basoa garatzea izango dela nekazaritza lurzoru gehienek jomuga pentsarazten digute baina momentuz baserriarrek belardi edo kanpina paisaiari eutsi egiten diote.

Landare estalki naturalaren garapena, eta, azken batean, berez sortutako basoarena, gaur egungo erabilera galduko duten nekazaritza lurzoru gehienek helmuga izango dela pentsatzen dugu. Hala gertatzen baita Ipar Euskal Herriaren mendiko udako larretan eta haranaren artean gelditzen diren eremutan eta mendi zonaldeetako eremu askotan (Euromontana, 1997).

Beste lekuetan, ordea, erabilerak bertan behera uzteko zorian daude, eta, gaur egun, laborantza lurrak eta belardiak ia modu orokorrean birmoldatu dira larretan. Hori dela eta, nekazaritzan lan egiten duten erakunde eta entitateak, Europar Batasunetik hasita, beren nekazaritza ingurunean eskulan faltaren ondorioak arindu ditzaketek hainbat ekimen bideratzen ari dira. Nekazal Batasun Politika berriaren egindako iragarpenak ordainketa bakarreko laguntzak aldatu eta, lur erabilerara indartzeko asmoa azaldu dute. Horrela balitz nekazariei aukera berriak ematen dizkie, nekazariak abeltzaintzarekin eta lur ereduak bultzatzen jarraitu ahal izateko.

Landa eremuen ekarpenei buruz sentsibilizatzeko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako eragileek “landa ingurune atlantikoaren paisaia balioak: oraina eta etorkizuna” izeneko proiektua abiarazi zuten, Askasibar eta Floresekin zuzenduta, 2013. urtean. Proiektu honek helburu nagusia Euskal baserriari lotutako landa paisaiei balioa ematea zen. Bertako paisaiak ezagutu, haien pertzepzioez jabetu eta haien inguruko iritziak jasotzeko ikerketen abiapuntua zen, hain zuzen ere.

Ikerketa Euskal Autonomia Erkidegoko haran atlantikoetako 9 eskualdetan zentratu zen. Eskualde guztiek baserria zuten ustiapen eredu nagusi gisa eta proiektuaren eragileek, Landa Garapen Eskualdeen laguntzarekin, landa eremuko partaideekin lan taldeak osatzen zituzten, beraien paisaia baloratzeko asmoz.

Paisaia baloratzeko, era honetako teknikekin trebeak ez diren pertsonentzako metodologia bat aplikatzen zuten, landa guneak aztertzerantz bideratua. Esplizituki paisaia bakoitzaren izaera propioa bizi duten biztanleentzat diseinatuta zegoen eta, beraz, paisaia horretako

4. LANDA BIZTANLEEK BASO, GAILURRAK ETA NEKAZAL LANAK, GEHIEN BALORATZEN DITUZTEN PAISAIK

biztanleek erabiltzeko. Teknika honek erabilera ohikoa izan da landa eremuko paisaiaren azterketetan (Ecovast, 2006).

Proposatutako metodoa hamar ataletan banatutako matrize batean zehazten da: azaleko materialak, klima, erliebea, lurzorua, landaretza, nekazaritza eta basoa, eraikuntzak eta populatze tipologia, beste eraikuntza tipologia batzuk (adibidez, azpiegiturak), elementu historikoak, sentimenduak eta elkarteak. Lehenengo laurak paisaiaren ezaugarri fisikoei buruzkoak dira, hurrengo bostak giza jardueraren berezko alderdiekin lotzen dira eta azkena paisaiaren alderdi emozionala jasotzen saiatzen da.

Planteatutako metodologia garatzeko hurrengo funtsezko alderdia eskualde bakoitzeko landa inguruneeko paisaia esanguratsuenak identifikatzeko saioak antolatzearen aldeko apustua izan zen. Landa Garapeneko Elkarte bakoitzak deialdi bat egin zuen bere landa paisaien kudeaketan esku hartzen zuten eragileentzat eta ingurune horretan bizi diren biztanleentzat, inguruko paisaia balioetsiko zuten etzabaida tailerretan parte hartzera animatuz. Eskualdeetan egindako partaidetza saioetan eta bildutako fitxetan oinarrituta, proiektuaren arduradunek Euskal baserriko landa paisaietan aurkitutako paisaia balio nagusiak biltzen dituzte. Hona hemen, laburbilduta, lortutako emaitzak (Ikus irudia 2):

- Lehen sektoreari lotutakoen artean, balio nagusia nekazari bera da. Bera arduratzen da landa paisaia zaintzeaz, eta, bere lanaren ondorioz, gizarte osoak zelai berde zabalak eta koloreen eta testuren aniztasuna ezaugarri duen basoa izan ditzake. Baina, gainera, baliabide naturalen erabilera jasangarria esleitzen zaio, eta emaitza, haren produktua, onuragarria da osasunerako. Landa eremuko biztanleen berezko balioen artean, honako hauek nabarmentzen dira: izaera dinamiko eta solidarioa, ingurunearekiko errespetua eta arkitektura, ondare eta kultura ekarpena.
- Landa paisaiei beren natur ingurunearen ezaugarriei lotutako beste balio batzuk ere egozten zaizkie, hala nola, kalitate handia, gailurrak, klima hezea, artifizializazio maila txikia eta, ondorioz, aisialdirako espazio gisa dituzten aukerak. Landa paisaiaren balio gehienak sortzen dituen sentimenduetan laburbiltzen dira: usain eta soinu atseginak, lasaitasuna, isiltasuna, bakardadea, naturaren erritmo pausatu baina etengabea, bakea, oroitzapenak, atsedena, erlaxatzea.
- Nekazariaren lanak eta haren ondorioek, hau da, belardi eta larreen paisaiak, eremuan bizi direnei eta bisitariei sortzen dien atsegin sentimendua azpimarratzen dute. Beraz, paisaia baten eta kalitatezko ingurune baten karakterizazioa balio garrantzitsua da. Nekazaritza lanaren beste alderdi azpimarragarri bat gizakiaren eta haren ingurunearen arteko oreka da; azpiegiturak kontserbatzea, basoa zaintzea, ingurunea garbitzea eta kontrolatzea.

**Irudia 2.- Auzoak, Belardiak, Mendiak eta Gailurak,
paisai baloratuenak**



Iturria: Tolosaldea Tour

Landa eremuko biztanleen borondatezko parte hartzean oinarritutako proiektua denez, ezin da paisaia integralari buruzko azterlantzak hartu. Baina emaitzak beste askoren iritziaren isla dira. Hori egiaztatzeko, eskualde bakoitzeko paisaia artelan desberdinetan nola islatzen den ikustea erabaki zen. Artearen helburuetako bat emozioak helaraztea dela abiapuntu hartuta, artisten lanak aztertzea bertako landa paisaien garrantzia eta esanahia neurtzeko modu bat izan zitekeelako (ikus irudia 3). Oro har, obra horiek behin eta berriz errepikatzen diren elementuak islatzen dituzte, paisaia hori lantzen zuten fitxetan jasoak, hala nola bertako klimari, erliebeari, gailurrei, belardiei edo basoei buruzko erreferentziak. Beste horrenbeste paisaiak sortzen dituen emozioez, sentimendu positiboez, lasaitasunaz, orekaz eta identitateaz esan daiteke. Nabarmendu beharreko azken alderdi bat landa inguruneak askotan sortzen duen izaera inspiratzailea da, aipatutako obretan ondo ikus daitekeena.

Irudia 3.- “Aralarko Paisaia”, Jose Luis Zumeta. 1998



Fuente: http://www.arcadja.com/auctions/es/zumeta_jose_luis/artista/339636/

